AURRERAPENEI BURUZKO AGIRIA

AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOARI BURUZKO IZAPIDEA, HONAKOAK ARAUTZEN DITUEN FORU DEKRETUAREN AURRERAPENARI BURUZKOA: ZENBAIT BABESTUTAKO NATURAGUNEETAN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN JABEGOKO ONDARE MENDIETAN ETA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ERABILERA PUBLIKOKO MENDIETAN EGITEN DIREN KIROL-PROBA KOLEKTIBOEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak hala eskatuta, aipatutako jarduerak esandako leku eta espazioetan arautuko dituen foru arautegi propioa eratu nahi da.

a.- Araubide berriarekin konpondu nahi den arazoa

Arautegi propioa eratuta, Bizkaiko Foru Aldundiak kirol-proba kolektiboak gauzatzen direnean honakoak saihestu nahi ditu: ingurumen kalteak eragitea Babestutako Espazio Naturaletan, mehatxatutako espezieei, baita Erabilera Publikoko Mendiei eta Foru Ondare Mendiei ere.

b.- Testu arautzailea onesteko beharra eta aukera

Araubide honen helburua babestutako espazio naturalei eragiten dieten kirol-proba kolektiboak baimentzeko araudizko esparrua ezartzea da, hain zuzen ere proba horiek garatzean ondare naturalean eta biodibertsitatean kalterik eragiten ez dela bermatzeko. Modu horretan, aipatutako probak gauzatzea ahalbidetu nahi da, azken urteetan asko ugaritu baitira, bai proben kopuruari dagokionez, baita parte-hartzaileen kopuruari dagokionez ere. Beraz, espazio naturalak eta mehatxatutako espezieak errespetatzen direla bermatzea ahalbidetzen duten gutxieneko mugak ezarri nahi dira.

c.- Arauaren xedea

Kirol Proba Kolektiboa zer den definitzea eta Bizkaian gauzatuko diren kirol-proba kolektiboak arautzea Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena lortu behar dutenean, bereziki

DOCUMENTO DE AVANCE

TRAMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA DEL AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DE LOS REQUISITOS QUE DEBEN CUMPLIR LAS PRUEBAS DEPORTIVAS COLECTIVAS QUE SE REALICEN EN DETERMINADOS ESPACIOS NATURALES PROTEGIDOS, ASÍ COMO EN LOS MONTES PATRIMONIALES PROPIEDAD DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EN LOS MONTES DE UTILIDAD PUBLICA DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA.

A iniciativa del departamento de Sostenibilidad y Medio Natural se pretende crear una normativa foral propia que regule dichas actividades en los lugares y espacios indicados.

a.- Problema que se pretende solucionar con la nueva regulación

Mediante la creación de una normativa propia, la Diputación Foral de Bizkaia pretende evitar, en la práctica de las pruebas deportivas colectivas, la generación de daños ambientales en los Espacios Naturales Protegidos, a las especies amenazadas, así como en los Montes de Utilidad Pública y Montes Patrimoniales Forales.

b.- Necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo

La finalidad de esta regulación es establecer el marco regulatorio para la autorización de las pruebas deportivas colectivas que afecten a los espacios naturales protegidos, para garantizar que dichas pruebas se desarrollan sin generar daños en el patrimonio natural y la biodiversidad. De esta forma se pretende favorecer el desarrollo de las citadas pruebas, que han adquirido en los últimos años un aumento exponencial, tanto en el número de pruebas realizadas como en el total de participantes. Se pretende por lo tanto establecer, las mínimas limitaciones que permitan asegurar el respeto a los espacios naturales y a las especies amenazadas.

c.- Objeto de la norma

Definir lo que se entiende por Prueba Deportiva colectiva, y regular los casos en los que las pruebas deportivas colectivas a celebrar en Bizkaia, deben obtener

babestutako espazio natural zehatzei eta erabilera publikoko mendiei eragiten dietenak, eta kirol proba horiek derrigorrez bete beharreko gutxieneko irizpideak eta baldintzak ezartzea.

Zehazki leku hauetatik igaroko diren kirol-proba kolektiboei eragingo die arauak: Urkiolako Parke Naturala, Gorbeiako Parke Naturala, Ordunte BBE, Armañongo Parke Naturala, Meatzaldea BP, Urdaibaiko kostaldeko aldeak eta padurak BBE eta Urdaibaiko Artadi Kantauriarren BBE.

d.- Planteatutako arazoarentzat arauzkoak eta arauzkoak ez diren irtenbide alternatiboak.

Egungo arautegia ez da izan eraginkorra Babestutako Espazio Naturaletan egiten diren kirol-proba kolektiboen ingurumen ondorioak arautzeko, mugatzeko eta kontrolatzeko, ezta mehatxatutako espezieak dauden eremuetan horiek egiteko ere. Beraz, beharrezkotzat jotzen da jarduera horiek arautzea berariazko araudi baten bitartez.

e.- Nori eragingo dio araudi proposamenak eta nori dago zuzenduta.

Orokorrean, sortu nahi den araudiak Bizkaiko bizilagun guztiei eragingo die.

autorización de la Diputación Foral de Bizkaia, en particular aquellas que afectan a determinados espacios naturales protegidos y Montes de Utilidad Pública, así como establecer requisitos y condiciones mínimas de obligado cumplimiento por las citadas pruebas deportivas.

En particular se ven afectados por la norma las pruebas deportivas colectivas que discurran por P.N. Urkiola, P.N. Gorbea, ZEC Ordunte, P.N. Armañon, B.P. Meatzaldea, ZEC zonas Litorales y Marismas de Urdaibai y ZEC Encinares Cantábricos de Urdaibai.

d.- Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.

La actual normativa se ha demostrado ineficaz para regular, limitar y someter a control los efectos ambientales de las pruebas deportivas colectivas en los Espacios Naturales Protegidos así como en zonas con presencia de Especies amenazadas, por lo tanto se estima necesario proceder a regular estas actividades por medio de una normativa específica.

e.- Públicos objetivos afectados por la propuesta normativa y a quienes se debe dirigir.

El total de la ciudadanía de Bizkaia se vería afectada por la normativa que se pretende adoptar.